

# XaguArtea

2010eko martxoaren 22a

Xaguon aldizkaria

51. alea

## Paseatzeko bide berria dugu Zerainen



Burgomendi inguratzen duen paseatzeko bide berria egokitu du Udalak, hainbat ibilbide prestatzeko lortutako diru-laguntza bati esker. Zeraindarrok herri-inguruan paseatzeko leku bat gehiago daukagu, hortaz. Antxaputxutik irten eta Burgomendiri itzulia eginez, Etxeberriraino doa bide hori. Berez, herritarrok nahiz kanpokoek paseatzeko prestatutako bidea da, baina normala denez, bertako lurjabeek lanerako ere erabili ahalko dute.

## XAGUARTEAN hainbat aldaketa 51. aletik aurrera

Esku artean duzun ale hau XaguArtearen 51. alea da. Duela lau urte pasatxo hasitako bidean, hilero-hilero *xaguon aldizkaria* prest izan da hala nahi duten xagu guztien txokotara iristeko. Ibilbide honetan hainbat gauza aldatzen (eta ustez hobetzen) joan gara, eta bide horretan jarraitu nahi dugu. Horregatik, ale honetatik aurrera nobedade batzuk izango dira. Orain arte inprimatzeko lanak ere guk geuk egiten genituen dirua aurrezteko, baina egun, ez da garestiagoa inprenta batean inprimatzea. Horregatik, hemendik aurrera modu profesionalean inprimatuko dute XaguArtea. Horrez gain, zerain.com eraberrituan ere hilero alea ikusi ahalko da. Eta aurrera begira, eta epe motzean, diseinu berrikuntza batzuk ere egin nahi ditugu. Ea guztiarekin gure XaguArtea hobetzen dugun!

## Zerralan biziberrituta etorkizunera begira jarri da

2010eko otsailaren 27an, Zerralan Elkarteako kideen urteko batzarra egin zen Zerainen. Duela hamabi urte baserritarren zerra-lanak egiteko sortutako elkarte biziberrituta eta etorkizunera begira irten zen batzarretik.

Azken hilabeteetan hainbat berrikuntza eta egokitzapen egin dira Zerralanen zerrategian. Makinaria egokitzeaz gain, ordea, erronka etorkizunari begira zerbitzua hobetzea ere bazen. Horretarako, urteko batzarran hainbat erabaki hartu zituzten:

1.- Kide berriak sartzeko aukera zabaldu du Zerralanek. Elkartean parte hartu nahi dutenek eta oraindik kide ez direnek hemendik aurrera aukera izango dute. Horretarako 200€ko diru-ekarpena egin beharko dute.

2.- Kide guztiek urtero kuota bat ordaindu beharko dute hemendik aurrera. Mantenimendu gastuei eta beste zenbait ezustekori aurre egiteko, bazkide bakoitzak urteko 5€ ordaindu beharko ditu. Hori dela eta,

5€ko kuota kutxan edo bankuan helbideratzeko, kontu zenbakiaren 20 digituak eman behar dituzte bazkideek Zeraingo Udaletxean nahiz Goimen Elkartean. Horrela modu sistematizatuan egingo da urteko ordainketa.

Zerralani edo batzarrari buruz informazio gehiago nahi duenak Zeraingo Udalera jo dezake. Era berean, otsailaren 27ko batzarreko aktaren kopia ere eskuragarri dute hala nahi duten bazkideek udaletxean bertan.

## Patxi Arrondok irabazi zuen Endika memoriala



Otsailaren 28an jokatu zen Endika Alustiza zenaren ome-nezko XVII. bola txapelketa Liztormendi bolatokian. 42 bolariren artean onena Patxi Arrondo aizpearra izan zen 36 birla jota. Haren atzetik Iñaki Maiz eta Andoni Berasategi sailkatu ziren. Bestalde, martxoaren 20an herrian jokatu zen Goierriko bola txapelketan hauek izan ziren lau onenak: Jesus Mari Intxausti (48 birla), German Gereñu (47 birla), Pedro Lazkano (47 birla) eta Untsulategiko Antonio Alustiza (46 birla).

## Ostatuko mus txapelketa



Aurten bigarren aldiz jokatu zen Ostatuko mus txapelketa martxoaren 6an. Giro bikainean jokatutako lehiaketa Mantecon anaiek irabazi zuten. Finalean Biaini eta Xeberianori irabazi zieten.

## Liztormendiko batzar orokorra

Liztormendi elkarteko urteko batzar orokorra martxoaren 27an, larunbata, egingo da goizeko 11:30etan. Soziedadeko bazkide guztiei dei egiten zaie batzar horretan parte har dezaten.

## Gabiriako eta Olaberriko ikasleak bisitan

Gabiriako eta Olaberriko herri-eskolek ikasleak herrian bisitan izan genituen joan den martxoaren 16an. Gure eskolako ikasle eta irakasleek gonbidatuta etorri ziren beste bi eskoletako haurrak. Goizean Zerain erakutsi zieten: plaza, eskola, museoa, Aizpeko burdinaren mendia, etab. Eta gure herri polita bisitatu ondoren, ume denek elkarrekin jolastu zuten, harik eta norbere herrietara joateko ordua iritsi arte. Egun zoragarri hau Goierriko eskola txikien elkarlanari esker egin zuten. Izan ere, hiru herrietako eskolek hainbat ekin-tza egiten dituzte urtero elkarrekin.



### Galtzen ari diren hitzak

## Zerrepel

Gaurko hitza diferentea dugu. Ez da baserri-giroko tresna zaharkituren bat adierazteko substantiboa; ez da basoko zuhaitz edo belar kontua, ez eta lantegi xaharren bateko produktua edo prozesua adierazten duena. Zerbaiten edo norbaiten izaera, egoe-

ra edo gogo-giroa azaltzen duen adjektiboa da gaurkoa. Egunero erabiltzen ditugun *eder*, *zikin*, *lodi*, *hotz*, *luze*, *bero* edo *gogor* moduko adjektiboa alegia. Adjektibo horiek, edo horien moduko beste ehun, bizirik daude zeraindar gazteen artean.

Horiek eta horien antzekoak ez dira galtzen ari, dakigularik: beharrezkoak ziren lehen, aitona-amonon garaian, eta beharrezkoak dira orain ere. Beharrezkoak direlarik, etxetik euskaraz dakiten zeraindar gazteen artean bizi-bizirik daude *eder*, *zikin*,

## Galtzen ari diren hitzak

hotz, luze, bero edo gogor modukoak. Zerrepel, aldiz, ez dago horiek bezala bizirik: galtzen ari da. Zer adinetik beherakoetan ari da galtzen? Ez neki-ke justu-justu esaten. Ganbaratxoko Maribelek badaki zerrepel zer den eta, esan didatenez, argi eta zuzen erabiltzen du. Adinez hortik beherako gehienek apenas ordea: adin inguru horretan dago, antza, muga. Zergatik ari da gazteen artean *zerrepel* galtzen, goiko beste adjektibo horien parekoa baldin bada?

Has gaitzen hasieratik: zer da *zerrepel*? Euskaltzaindiaren hiztegirajo du Elenak, hitz hori nola definitua dagoen jakin nahirik, eta berehala konturatu da *zerrepel* forma ez dela bertan ageri. Ez, behintzat, sarrera nagusi moduan. Akademiaren hiztegi handian *zerbel* ageri da sarrera gisa. Beste hitzetan esanik, *zerbel* dator lehenik eta gero horren antzeko beste forma asko: *zerpel*, *zerepel*, *zerephel*, *zerrepel*, *zarrepel*, *sarrepel* edo, Oñati aldean, *sarrepel*. Hots-aldaera askotxo dira zortzi horiek, ondo pentsatzen jarrita. Baina ez da harritzekoa: Euskal herri gehienean erabili izan da hitza, hasi Bizkaitik (eta horren saileko Deba ibarretik) eta Erronkarira bitartean, eta lekuan-lekuan bere hots-bilakaera berezia izan du mendeen joanean. Ez dira aldaera handi-handiak ordea: nahiko bateraturik iraun du orain arte, azal eta mami. Badirudi aspaldiko hitz arrunta dela.

Zer esan nahi du? Elenak Zerainen jasotako testigantza honela eman liteke, adibide baten laguntzaz: "berriketan hasi eta, akordatzerako, *zerrepeldu* egin zaigu kafea". Hoztu egin dela alegia, gutxi-asko. Beraz, Elenaren adibide horretan *zerrepel* eta *epel* ez dabilta semantika aldetik oso urrutik. OEH hiztegian ere ez. Hauxe dio, izan ere, Orotariko Euskal Hiztegiak: "tibio, calentito, templado; se dice de alimentos". Adibide moduan honako hau ematen du: "*urzerbel hori ez daiteke edan, no se puede beber esa agua tibia*". Epel modukoa da *zerrepela*, antza. *Hotzila* (eta, zer

esanik ez, hotza) baino beroxeagoa halere, itxura denez.

Ez da "tibio, calentito" hori bere adiera bakarra. Aurreko esangura horretatik asko urrunduta gabe, beste hau ere berea du: "estropeado; calentado: ardo *zerrepela*". Bai eta beste hau ere: "*zerbel*, chamuscado" edo "tibio, hacia frío, templado; de mal gusto". Hasierakoetan ez bezala, gaitzespenkutsu nabarmena antzematen zaie oraingo adiera hauei. Baita eguraldiaz hitz egiterakoan ere: "tiempo caluroso e insano". Adiera negatiboz kargaturik dator hitza ondoko adibide honetan: "*Hauxe eguraldi zerbela*". Epel modukoa izateaz gainera kutsu negatiboa du hortaz hitzak, hainbat kasutan. Ez hori bakarrik: bere-berea du zurbiltasun-seinalea ere, zenbait idazleren luman: "*laino-mordo zurixkak noizbehinka estaltzen zioten ilargiari aurpegi zerbela*", edota "*argi-lanbro zerebelean bilduta agertzen ziren ilargipean mendiak eta basoak*". Baita beste metaforiko honetan ere: "*ordu-laurden batean begiztatu zuen, ilargiaren argi zerbelera, Dorronsoroko torrea*". Hezetasun-seinalea ere berekin du, zenbaitetan: "*Goizeko argi zerbelak betazalak leundu zizkion*", edota "*haitzuloko horma zerbelak*". Orixeren *Euskaldunak* poematik jasoa da, idazkera batura egokituz zertxobait, hurrengo adibide hau: "*Goizez zabaldu duten belarra zerbel dela mailaratu dute*". Gaztelaniazko itzulpenak "La han tenido que recoger en filas húmedas" dio.

Horrezaz guztiaz gainera badu hitz horrek, hiztun edo idazle landuen artean, aparteko lekurik. Gizabanakoaren gogo-giro bereziak azaltzeko, metafora bidezko karga semantikoa erantsi zaio hitzari. Horrela, norbanako bat "tibio, poco fervoroso" dela esateko erabili izan da *zerrepel*. Bai eta, goiko "calentito, húmedo" horien ildotik, "alegrillo a causa de la bebida" adierazteko ere. Honelakoa da adibide hau: "*asko eza-gutu ditut, baraurik baino zerbel daude-nean elizmaiteago*".

Zergatik ari da *zerrepel* galtzen, beste hainbat adjektiboren pareko

baldin bada? Zergatik *gogor*, *luze* eta *epel* bizi-bizirik daude, eta *zerrepel* ez? Nire hipotesia honako hau da. Erdaraz dihardugu, gazte-jendeak bereziki, egunaren zati on batean: gero eta ordu gehiago egiten dugu erdaraz, lantokian eta (telebista barne) astialdian. Etxetik kanpora atera orduko aurrean ditugun euskaldun guztiak ere ez dira, gainera, hain hiztun garbiak: gero eta gutxiago dira halakoak, eta gero eta maizago jarduten dugu hitzetik hortzera erdal makuluen laguntzaz diharduten euskal hiztunekin. Geu ere ez gara, Zerainen bizi arren, aurreko zeraindarrak bezain hiztun garbiak. Guk ere hitzetik hortzera jotzen dugu erdal makuluetara: bixitasun berezi bat eskaintzen dutelako, nahi gabe ere errazago ezpainetaraten zaizkigulako, horietaz baliatuz gure burua nolabait jaso egiten dugula iruditzen zaigulako,.. Geuretzat eta ingurukoenetzat alferrikako lujoa da, hori guztia dela medio, *zerrepel*. Aski izaten dugu, normalean, *epel* hitzarekin. Hortik aurrera, zehaztasun semantiko handiagoen premian suertatzen garenean lasai asko jotzen dugu erdal forma batera. Lehen euskaraz azaltzen genituen xehetasun batzuk ez ditugu orain euskaraz azaltzen: aurrean dugun solaskidea gu bezain elebiduna delarik, askotan gu baino erdal elebidunago, euskara "simple"ago batekin aski izaten dugu. Hortik aurrerako zehaztasun semantiko zorrotzak, halakorik behar edo komeni izanez gero, erdaraz ematen digu sarri. Baita Zerainen ere: gure Ander honek "neure onetik atera behar nau" esatetik "me tiene frito"rako bidean goazelarik sarri, aski eta sobera dugu *epel* hitzari eustearrekin. Kontuak horrela izanik, idazle landuentzat eta hiztegielentzat geratzen ari dira *zerrepel* modukoak. Idazle landuek eta hiztegiek ez dute, ordea, hizkuntza bizia belaunez belauan transmititzen eta indartzen.

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



## Xagu-txoko



Babesetik

OTSAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>
Euria (l/m)	4	0	0	2	5	12	2
C° altuena	9	12	13	12	14	12	12
C° baxuena	-1	-3	-3	7	7	7	4
	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>14</b>
Euria (l/m)	7	8	1	17,5	4	0,5	1
C° altuena	11	4	2	4	3	2	3
C° baxuena	3	3	2	-3	-4	-3	-3
	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>	<b>20</b>	<b>21</b>
Euria (l/m)	0	0	4	0	24	0	0,5
C° altuena	7	8	10	13	9	12	10
C° baxuena	-3	-2	4	1	3	-1	2
	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>	<b>27</b>	<b>28</b>
Euria (l/m)	1	0	2,75	1	0	1,5	0
C° altuena	16	16	16	17	17	18	18
C° baxuena	6	11	10	10	7	7	9
Euria (l/m)	GUZTIRA : 98,75l.						
C° altuena	ALTUENA: 18°						
C° baxuena	BAXUENA: -4°						

## Elurra, hotza eta haizea otsailean

“Otsail txikik erdia parrez eta beste erdia negarrez” egiten omen du. Baina aurten parre egiteko egun asko ez dizkigu utzi. Euritan asko bota ez badu ere, elurra, izotzak, eta haizete latza utzi dizkigu. Ondorioak ere nahi baino okerragoak. Eskerrak hil motza den!



## Sekulako haizetea eta txikizioak



Otsailaren 27 eta 28 artean “ziklogenesi” edo haizeteak eragindako txikizioak.

## Autoen zergak

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak ordaintzeko epea 2010-03-31tik 2010-05-31ra izango da. Helbideratuta duzuenoi lehen egunetan pasako zaizue kontutik, eta helbideratu gabe dutenei jakinarazten zaie, udaletxean ordaindu beharko dela goian aipaturiko epe horretan.

## Traste zaharren bilketa

Jendeak traste zaharrak biltzeko egutegiari kasu gehiegi ez diola egiten ikusita, Sasietak kanpaina abian jarri du. Egunotan banatu dute etxe guztietara informazio-eskuorri bat.

## EGI-koen batzarra

EAJko gazteen EGI elkarteak (Eusko Gaztedi Indarra) EGI eguna Zerainen ospatuko du aurten. Martxoaren 27an, herrian egingo dituzte euren ospakizunak. Goizean euren ekintza politikoak egingo dituzte eta ondoren, trikipoteoa, dantza eta gauean Joseina Etxeberría izango dituzte.